

GETXO / Liburutegiek eta ikasgelek ordutegi berriak dituzte azterketa aldiagatik

GETXO.- Getxoko ikasleek ikasteko 500 leku izango dituzte urtarril-azterketa aldian. Horrela, bada, Getxoko Kultur Etxeko liburutegi eta ikasgeletan ordutegiak luzatuko dira otsailaren 4ra arte, astelehenetik ostiralera. Halaber, larunbatetan eta igandeetan ere zabalduko dira. Honez gain, J.B. Zabala eta Romo ikastetxeek, eta Getxo I institutuak ere zenbait ikasgela eskainiko dituzte otsailaren 8ra arte. Algortako (San Nikolas eta Villamonte), Areetako eta Erromoko liburutegiek 266 ikasleku eskainiko dituzte eta beren ordutegia luzatu egingo da asteburuetan. Horrela, bada, goizez, 9:15etik 14:00etara eta, arratsaldez, 16:15etik 20:00etara egongo dira zabalik. Larunbatetan, berriz, 9:15etik 13:00era eta 16:15etik 20:00etara zabalduko dira eta, azkenik, igandeetan, 16:15etik 20:00etara. Bestalde, Kultur Etxeko ikasgelek ere luzatuko dute beren ordutegia: Erromon (Santa Eugenia), gaueko 22:00ak arte eta, Andra Marin, 21:45era, astelehenetik igandera.

Urtarriletik aurrera udal liburutegiek ordutegi berriak izango dituzte. Horrela, neguko goizeko ordutegia 14:00etara arte luzatzen da astelehenetik ostiralera (orain arte 13:00ean ixten ziren). Udan ere ordutegiak luzatuko dira: 14:30ean itxiko dira liburutegiak. Luzatze honen bidez, liburutegiek publikoaren eskaerari eta erabiltzaileen eta maileguen gehitzeari aurre egin nahi zaio. Gainera, ordutegien luzatzea dela medio zerbitzu hobea eskaini nahi dute liburutegiek, erabiltzaileei erraztasun gehiago emateko eta jende gehiago erakartzeko asmotan.